

OZEANOAK ETA KLIMA-ALDAKETA JARDUNALDIA **Ozeanoek klima-aldaketaren aurkako borrokan duten garrantzia,** **diziplina anitzeko ikuspegi lokal eta eraldatzaile batetik.**

2025eko abenduaren 11
BBK Urdaibai Zentroa (Busturia)

SARRERA

Ozeanoak gure planetaren bihotz urdina dira, baina, hala ere, haiei buruz ezer gutxi dakigu oraindik eta, askotan, haien garrantzia ez da erabat islatzen gure gizarteko esparru askotarikoetan, nahiz eta funtsezko zeregina betetzen duten bai planetaren bizian eta bai ozeanoak ezinbestean behar dituzten milioika pertsonarenean. Ozeanoek klima erregulatzen dute, sekulako biodibertsitatearen aterpe dira, eta kostaldeko bizimodu, kultura eta ekonomien oinarri.

Krisialdi klimatikoa ozeanoen dinamikak aldarazten ari da, baina, era berean, ozeanoak gehiegizko ustiapen, kutsadura eta bestelako presioen pean jartzen ditugunean, krisialdi klimatikoa areagotzen ari gara. Testuinguru horretan, ingurumen-heziketa eraldaketarako tresna bat da, kontzientzia sortzeko, ekitera bultzatzeko eta narratiba berriak sortzeko, ikuspegi zientifiko, kultural eta komunitarioetatik eta genero-ikuspegitik.

Jardunaldi honetan partaidetzazko eta diziplina anitzeko elkarrizketa bat proposatu nahi da, hezkuntza, zientzia, kultura, genero-ekitatea eta tokiko jakintzak gurutzatuta ozeanoen eta klima-aldaketaren erronkei heltzeko, ikuspegi integral batetik. Hainbat esperientzia inspiratzailearen bitartez eta tokiko nahiz nazioarteko adituen parte-hartzearen bidez, klimaren aldeko ekintza eta ingurumen-justizia tokikotik globalera sustatzeko aliantza eta jarduteko modu berriak esploratuko ditugu.

HELBURUAK

1. Klimaren eta ozeanoen aldeko ekintza sustatzea, hezkuntza- eta komunikazio-estrategia berritzaileen bidez.
2. Emakumeek itsas zientzian duten eta izan duten garrantzia eta rola eta klima-aldaketak kostaldeko komunitateetan dituen inpaktu bereziak ikusaraztea.
3. Itsas ondareari, tokiko jakintzei, emakumeen rolari eta erresilientzia komunitarioari duten balioa berriro ematea, jasangarritasunerako giltzarri diren heinean.
4. Trantsizio justu, jasangarri eta erantzukidea sustatuko duten narratiba berriak sortzea.

NORI ZUZENDUTA

1. Hezkuntza-arloko profesionalak eta irakasleak.
2. Itsasoaren, jasangarritasunaren eta ingurumen-kudeaketaren arloetako ikertzaileak, profesionalak eta teknikariak.
3. Ingurumenarekin eta hezkuntzarekin lotura duten diziplinetako anitzeko ikasleak eta irakasleak.
4. Itsasoarekin eta kostaldearekin lotura duten gizarte-, kultura- eta komunitate-erakundeetako ordezkariak.
5. Ozeanoen, hezkuntzaren eta klima-aldaketaren inguruko gaietan interesa dutenak, oro har.

PROGRAMA

09:00 – 09:30 Erregistroa eta ongietorria

09:30 – 9:50 Jardunaldiaren aurkezpena

- **Leire Zarate**, BBK Klimaren arduraduna.
- **Adolfo Uriarte**, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren zuzendaria.
- **Arantza Acha**, UN Etxeko zuzendaria.

09:50 – 11:00 Hitzaldi nagusia: “Ozeanoek klima-aldaketaren arintzean duten garrantzia: zientzia, politikak eta justizia klimatikoa”

- **Djian Sadadou**, Office for Climate Education (OCE) erakundearen ordezkaria.

11:00 – 11:30 Hezkuntza-proposamenak

- Ikaskuntza-egoera: “Hegaluzea, atuna eta itsasoa, Bermeoko erara!”. **Leire Egiarte**, BTWC, eta **Eva Quiroga**, UN Etxea
- Euskadiko Eskola Urdinen Sarea, **María Calvo Uyarra**, AZTI
- Ozeanoen gida didaktikoa. **Andrea Antúnez**, Tu Compi de Sociales

11:30 – 12:00 Kafea hartzeko etenaldia

12:00 – 13:30 Eztabaida-panela: “Gure ozeanoa, gure etorkizuna, gure erantzukizuna”

Panel honetan hezkuntza, berrikuntza, genero ekitatea eta genero ekitatea erakusten dituzten esperientziak biltzen dira.

- Ulyses proiektua: Hezkuntza eta Zientzia. **Bernard Seco**, Data for Science Fundazioa
 - Hezkuntza ozeanikoa ekinean: **Izaskun Suberbiola**, MATER Ontzi Museo Ekoaktiboa.
 - Atunaren jasangarritasuna, tokikotik globalera: **Maitane Leizaola**, Bermeo Tuna World Capital.
 - Genero-berdintasuna ozeanoen jasangarritasunean: **Silvia Donoso**, Itsas Zientzien Institutua - CSIC.
- Moderatzailea: **Arantza Acha**, UN Etxea.

13:30 – 13:50 Bisita Ulysses Experience-ra

- **Nerea Telletxea**, BBK Klima.

13:50 – 14:00 Jardunaldiaren amaiera

14:00 – 14.45 Cateringa Atun Jasangarriarekin

HIZKUNTZA

Aurkezpenak gaztelaniaz egingo dira, bestelakorik adierazi ezean. Hizlariak eta entzuleak nahi duten hizkuntzan komunikatzeko eskubidea bermatuko da.

IZENA EMATEKO ORRIA

<https://forms.gle/b9VM6Xmr7hUnvZbUA>

LAGUNTZAILEAK



OSPATUZ



2021 United Nations Decade
2030 of Ocean Science
for Sustainable Development